

**Elkartasun keinu berria****EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 560.000 EURO  
BAINO GEHIAGO EMAN DITUZTE, UNICEF-EK  
UKRAINAKO KRISIAK JOTAKO HERRITARREI  
LAGUNTZEKO**

- **Martxoko hilean, EROSKIkan kanpaina bat egin zuen, berehalako laguntza behar duten herritarren oinarrizko beharrak estaltzen laguntzeko.**
- **Elkartasun Zentimoak programa iraunkorraren hurrengo xedea ere Ukrainako trajediak jotakoak izango dira**

**Elorrio, 2022ko apirilaren 4a.**- [EROSKI](#)kan eta haren bezeroek 560.000 euro bildu dituzte Ukrainako krisiak jotakoen giza laguntzarako larrialdiko kanpainan. Martxoko hilean egon da aktibo bere denda sarean.

EROSKIkan eta bezeroek emandako guztia herritar kaltetuentzat bideratuko dute [UNICEF](#) Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsetan bitartez, Ukrainako haurrak eta haien familiak artatzen ari baitira herrialdearen ekialdean (Donetsken eta Lugansken) 2014an gatazka piztu zenetik. Horretaz gainera, UNICEF, nazioarteko beste erakunde humanitario batzuekin eta herrialdeko agintariekin koordinatuta, lanean ari da premiaz zabaltzeko laguntza humanitariorako programak Ukraina osora eta harrera egiten ari diren herrialdeetara.

*"Eskerrak eman nahi dizkiegu kontsumitzaileei deialdiari eman dioten erantzunagatik. Horrelako ekintzak oso garrantzitsuak dira, premia handiena dagoen lekuetara ahalik eta lasterrena iristeko",* esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

*"Beste behin, eskerrak eman nahi dizkiegu EROSKIri eta haren bezeroei, ekimen honi eman dioten erantzuna dela eta. UNICEFek larrialdiko 1.275 tona hornigai bidali ditu jada Ukrainako eta herrialde mugakideetako haurrei eta familiei laguntzeko. Bidalketa horietan funtsezkoak diren hornigaiak doaz, hala nola material medikoa, ur hornidura, saneamendua, medizina, erditzeetarako kitak, ekipo kirurgikoak eta aisialdiko kitak",* azaldu du Isidro Elezgarai, UNICEFek EAEn duen batzordeko presidente eta Espainiako UNICEFeko patronatuko kide denak.

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel.: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

**Online prentsa aretoa**

## **Programako kausa berria**

Apirilean, EROSKI elkartasun programa iraunkorraren beste kausa bat abiaraziko du, eta hortik ateratakoa ere Ukrainako krisiaren ondorioak jotakoei laguntzeko izango da. Apirilaren 7an hasiko da kanpaina EROSKIIn, CAPRABOn eta VEGALSAn. Bildutakoa honako erakunde hauentzat izango da: [ACNUR](#), [CEAR](#) (Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea), [ZEHAR-Errefuxiatuekin](#) EAEn eta Errefuxiatuei laguntzeko batzorde katalana.

Ordainleketako Elkartasun Zentimoen bitartez, EROSKIren bezeroek dohaintza txiki bat egin dezakete aldi bakoitzean dagoen ongintzako kausarako erosketa txartelarekin edo sakelakoarekin ordaintzen dutenean. Ekarpena, beti borondatezkoa eta isilpekoa, 10 zentimoko kopuru txiki sinboliko bat da 5-30 euroko erosketetan eta 20 zentimokoa 30 eurotik gorakoetan.

EROSKI 100.000 euroren arropa eta oinetakoak emango ditu Ukrainarako laguntza sustatzen duten gizarte erakundeentzat, hala nola Caritas EAEn, Ukraina-EAE Garapen Lankidetzaren sustatzeko Elkartea eta Gurutze Gorria Katalunian.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

**Online prentsa aretoa**